



Naiara Crujeiras, jai batzordeko beste kide batzuekin batera, Larratxoko plazan duten lokalean.

Hainbat auzotako erraldoiak elkartuko dira Larratxon

Atzera kontaktetan murgilduta daude Larratxon, ostegunean lehertuko baitira auzoko jaiak. Hainbat berritasunekin datoz aurten, tartean Erraldioen Topaketa eta Bingo Musikatua.

T & A Beñat Parra Rodriguez

Donostiako udako lehenengo jaietarikoak dira Larratxokoak, eta, horregatik, jendea «gogo handiz» egon ohi dela nabarmendu du Larratxoko jai batzordeko kide Naiara Crujeirasek. Dioenez, aurten ere horrela ikusten du auzoa: «Larunbatero, futbol txapelketako partidak jokatzeko ari gara, eta jendea atzera kontaktarekin dabil astero: 'hiru aste gelditzen dira!', 'bi aste gelditzen dira!', eta horrela».

Lasai egon daitezke Larratxokoak, astebete baino gutxiago gelditzen baita

txupinazoa bota eta festa lehertzeko, eta jai batzordeak egitarau zabala prestatu baitu aurten ere, adin guztietako auzotarrak jaietz goza dezaten. «Gu nekatuta iritsi ohi gara jaietara lan guztiarengatik, baina jaiak aurrera egin ahala, pasatzen zaigu nekea eta guk ere gozatzen dugu», dio, barre artean, Crujeirasek.

Nahi adina berritasun

Jarduera ugari izan ohi ditu Larratxoko jaietako bost eguneko egitarauak, baina urtero baten bat gehiago sartzeko tartea

aurkitzen dute jai batzordekoek: «Hainbat berritasun ditugu aurten: Erraldioen Topaketa, Bingo Musikatua, osteguneko kontzertua, ur zezenak eta Asgicer elkar-tearen postua eta zumba erakustaldia, hain zuzen ere», azaldu du Crujeirasek.

Osteguneko kontzertua patioan izango da, eta Zarratak talde gazteak joko du, auzoa punk eta metal erritmora mugitzeko. Bestalde, ur zezenak estreinakoz izango dituzte Larratxon, eta Asuncion ikastetxeok proposatuta antolatu dute Bingo Musikatua astelehenerako. Horrela, Crujeirasen hitzetan, astelehenean barrakak merkeago jartzeaz gain, jarduera bat bere horretan ere izango dute jaiak.

Hala ere, Erraldioen Topaketan jarri dituzte jarrita espektatiba gehien, batzordekidearen arabera: «Herrerako, Loiolako, Groseko eta Parte Zaharreko erraldoiak etorriko zaizkigu bisitan, eta gureekin batera ibiliko dira auzoan. Beste toki batzuetan ere egiten dute, eta oso polita iruditzen zaigunez, bizilagun batek proposatu zigunean, animatu ginen gu ere antolatzera. Uste dugu arrakasta handia izango duela egitasmoak!».

Bestalde, berritasun berezi gisa, minbiziaren aurkako Asgicer elkarteak jaietan parte hartuko du aurten: larunbatean, postua jarriko du eskolako patioan, eta zumba erakustaldia antolatu du.

Betikoak ez dira faltatuko

Bertutea erdiko puntuan dagoela dio esamolde ezagun batek, eta berritasunen eta jarduera tradizionalen arteko ohitura ondo baino hobeto mantentzen dakite Larratxon. Izan ere, berritasunetatik harago, urtero arrakasta handia duten jarduerak ere antolatu dituzte aurten, Crujeirasek barrez dioenez,

Minbiziaren aurkako Asgicer elkarteak jaietan parte hartuko du aurten: postua jarriko du patioan, eta zumba erakustaldia antolatu du

nahiko balute ere, ezingo lituzketelako egitarautik kendu: «Txupinazoko holi festa, paella lehiaketa eta zikiroa, esaterako, tradizio bihurtu dira dagoeneko». Halaber, iaz estreinakoz antolatutako Rap Lehiaketak gazteen artean «arrakasta handia» duela nabarmendu du.

Egitarau zabala eta lan handiz landutakoa prestatu dute Larratxoko jaietarako, eta gauza bakarra baino ez du eskatu Crujeirasek hurrengo asteburura begira, Donostiako jai batzorde guztiek eskatu ohi dutena: «Ea eguraldi ona egiten duen!».

Egitaraua

EKAINAK 6, OSTEGUNA

17:00etan, plazan:

Txokolate jana.

17:00etan, eskolan:

3x3 futbol txapelketa.

17:30ean, plazan:

Ipuinez blai haur ikuskizuna.

19:00etan, auzoko tabernetan:

Pintxo-potea.

19:30ean, plazan:

Txupinazoa, Holi festa, erraldoiak eta buruhandiak Arraketai txarangarekin.

20:00etan, eskolan:

Futbol txapelketaren finalaurrekoak. Amaieran luntxa partaideentzat.

20:30ean, plazan:

Zezensuzkoa.

22:00etan, patioan:

Zarratak taldearen kontzertua.

EKAINAK 7, OSTIRALA

11:00etan, eskolan:

Auzoko aitona-amonentzat toka, bote eta rana.

17:00etan, plazan:

2023ko ekaina eta 2024ko ekaina bitartean jaiotako haurrei jaien zapia banatuko zaie.

17:30ean, plazan:

Txokolate jana.

17:30ean, patioan:

Peke omentzeko partida.

18:00etan, plazan:

Gora bihotzak haur ikuskizuna.

18:00etan, frontoian:

Pala txapelketaren finala.

18:45ean, eskolan:

Futbol txapelketaren finala eta sari banaketa.

19:30ean:

Erraldoi eta buruhandiak, dultzaineroekin. Jarraian, zezensuzkoa plazan.

21:00etan, plazan:

Herri afaria: sardinak eta saiheskia.

22:30ean, eskolan:

DJ festibala: Beni DJ-a, Dreizehn 13 Music eta Txolas DJ-a.

22:30ean, Indarra tabernan:

Bakarriketa.

23:30ean, plazan:

Natatxe orkestra. Helduen herri danborrada.

23:30ean, Ana Mari tabernan:

DJ-a.

Errehabilitazioak

- Fatxadan isolamenduak
- Teilatu konponketak
- Zaharberritzeak
- Teilatuak



GIPUZKOAN, EUSKAL HERRIAN ETA INGURUKO PROBINTZIETAN.

jobilan.eus 620706936

irale

Ondo pasa Larratxoko jaietan!

IRAKASLEEN EUSKARAZKO
PRESTAKUNTZA ZERBITZUA

Larratxo pasealekua, 51-53 | DONOSTIA
Tel.: 943-40 46 10 | 012233aa@hezkuntza.net

Larratxoko jaiak

EKAINAK 8, LARUNBATA

10:00etan:

Diana, udal txistulariekin.

11:00etan, Txirritako plazan:

Toka eta bote txapelketa.

11:20ean, eskolan:

Lineako dantzak. Jarraian, Donostiako koru eta dantza Virgen de Guadalupe.

12:00etan, Txirritako plazatik:

Haur danborrada.

12:00etan, eskolan:

XII. Paella Lehiaketa.

12:30ean, eskolan:

Asgicer elkartearen eskutik, zumba.

14:00etan:

Paellen aurkezpena eta sari banaketa, Petritegik babestuta.

14:30ean, eskolan:

Herri bazkaria, paella erraldoiarekin.

16:30ean, patioan:

Matraka elektrotzaranga.

16:30ean, plazan:

Txasiss eta Showtimeren eskutik, musika, dantzak eta *show*-a.

17:00etan, eskolan:

Prismatikoen eskulana, txapa tailerra, hiru lerroen erraldoia, marrazki txokoa, *photocall*-a eta III. Gazte Olinpiadak, Larratxoko Gazteleku eta Haurtxokoaren eskutik.

18:00etan, Bella Vista Zahar Etxean:

Aitona-amonentzako dantzaldia, Rafa Erentxunen eskutik.

18:30ean, eskolan:

Apar festa.

19:30ean, eskolan:

VII. Rap Lehiaketa.

20:00etan:

Erraldoiak eta buruhandiak dultzaineroekin.



21:00etan, plazan:

Herri afaria: sardinak eta saiheskia.

22:15ean, eskolan:

Rap festibala: Ayensa, Unotres Mobb, SNKT eta El Negro.

23:00etan, Indarra tabernan:

Gau iberikoa.

23:30ean, plazan:

Steve_Music.

23:30ean, Txirritako plazan:

1990eko hamarkadako *remenberra*.

23:30ean, Ana Mari tabernan:

DJ-a.

00:30ean, plazan:

Zezensuzkoa.

EKAINAK 9, IGANDEA

11:00etan, plazan:

Herri Ametsa ikastolaren eskutik, euskal dantza.

11:00etan, Indarra tabernan:

II. Kroketa Lehiaketa.

11:00etan, eskolan:

Herri kirolak: Inaxio Perurena, Manolo Cañamares eta Bea Tanko.

11:30ean, patioan:

Erraldoien Topaketa.

12:00etan:

Kalejira, Txirrita plazaraino.

12:00etan, eskolan:

XII. Sagardo Eguna.

14:30ean, plazan:

Herri zikiroa.

16:30ean, Indarra tabernan:

Mus txapelketa.

16:30ean, patioan:

Ur zezenak.

17:30ean, eskolan:

Mary Poppins musikala.

19:00etan:

Erraldoiak eta buruhandiak.

19:00etan, plazan:

Roberto Urrutia eta bere mariatxien ikuskizuna.

21:00etan:

Jai amaierako traka.

EKAINAK 10, ASTELEHENA

Haurren eguna: barrakak merkeagoak.

17:00etan, plazan:

Bingo musikatua, Asuncion ikastetxearen eskutik.